La expulsión de la instalación y la suspensión temporal de la condición de socio no dará derecho en ningún caso a la devolución de las cuotas abonadas. Si durante el período de suspensión se dejase de abonar las cuotas correspondientes, se procederá a la baja definitiva del socio.

**ERABILERA-ARAUDIA****1. 1. BASKONIA KIROL HIRIA (aurrerantzean, BAKH)**

BAKH kirol- eta gizarte-gune bat da eta, erakunde bezala, osasuna eta ongizatearen sustapena dira bere balio nagusiak.

Honako hauek dira BAKHen balioak:

- Norberaren eta familiartekoen gozamina.
- Bazkide guztien gizarte-harremana sustatzea.
- Jasangarritasuna. Ingurunearekiko integrazio arrazionalaren aldeko apustua.
- Enpresa-harremanak sustatzea.
- Berrikuntza, barneko eta kanpoko eskaintza guztien bitartez.

BAKH osatzen duten esparru guztiek nahitaez bete beharreko zenbait arau eta gomendio dituzte. Bazkideei zerbitzu onena emateko helburuaz, barne-funtzionamendurako eredu bat planteatzen da araudi honen bidez.

Araudi honetan egiten den edozein aldaketa behar bezala jakinaraziko da, eta honen bertsioa eguneratu egingo da ere.

BAKHen gain ez dauden ezinbesteko arrazoiak direla eta zerbitzuak, programazioak edo ordutegiak aldatzen badira, eta kontrakoa adierazi edo zehaztu ezean, ez da konpentsaziorik gauzatuko.

**2. Instalazioak.**

BAKHek bazkideentzat erabilera pribatuko zein mistoko instalazioak ditu:

- Erabilera pribatuko instalazioak bazkideek soilik erabili ditzakete.
- Erabilera mistoko instalazioak bazkideek zein bazkide ez diren erabiltzaileek erabili ditzakete, betiere bazkideek lehentasunak izanik.



Izotz-pistaren kasuan eta Udalarekin adostutako hitzarmenean jasotako erreserba-ordutegietatik kanpo, BAKHeko bazkideek lehenetasuna izango dute.

Gainera, BAKHeko langileek soilik erabili ditzaketen sarbideak eta guneak daude instalazioetan. Gune eta sarbide horiek behar bezala identifikatuta egongo dira, eta baimendutako langileek soilik erabili ditzakete.

Gabezia tekniko edo normatiborik eman ezker, erakundeak instalazioen erabilera eten dezake gabezia horiek konpontzeko.

### 3. Orduategia.

Lanegunetako orduategia: 07:00etatik 23:00etara.

Larunbat, igande eta jaiegunetako orduategia: 09:00etatik 22:00etara.

Kirol instalazioen zerbitzua 07:00etan hasi eta 22:30etan amaituko da. Larunbat, igande eta jaiegunetan aldiz, orduategia 09:00etatik 21:30etara izango da.

Abenduan eta urtarrilean, Gabonetako jaiekin batera, hurrengo hau izango da orduategia:

- Abenduak 24: 07:00etatik\* 15:00etara.
- Abenduak 25: Itxita.
- Abenduak 31: 07:00etatik\* 15:00etara.
- Urtarrilak 1: Itxita.

\* Asteburuan jausi ezker, 09:00etan irekiko da.

Halaber, Andre Maria Zuriaren jaietan honako orduategi hau ezarriko da:

- Abuztuaren 5etik 9ra: 09:00etatik 22:00etara.

### 4. Sarbidea.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak sartu daitezke BAKHeko instalazioetara:

- Bazkide izan eta dagozkien kuotak ordainduta dituzten pertsonak.
- Bazkide izan gabe, zuzendutako jarduerak edo ikastaroak kontratatu dituzten pertsonak. Erabiltzaile horiek jarduera burutuko den gune espezifikora soilik sartu daitezke denbora-tarte mugatu batean (jarduera hasi baino 15 minutu lehenago sartu eta jarduera amaitu eta 45 minutu ondoren irten behar dira).
- BAKHen aldez aurreko baimenarekin, haur adingabeei lagundu behar dieten pertsonak, behin adingabeak jardueraren arduradunarekin dauden momentura arte. Kasu horretan eta jarduerak iraun bitartean, laguntzaileek bazkideen kafetegia erabili dezakete.
- Sartzeko eskubidea izango dute, halaber, zuzendaritzak instalazioak erabiltzeko baimendu ditzakeen norbanako edo taldeek.
- Aldi berean, eta salbuespen gisa, kirol-, kultura- edo jolas-ekitaldiak antolatzen badira, instalazioetarako sarrera librea izan daiteke, edo sarrera ordainduz ahalbidetutakoa (bazkideek zein bazkide ez diren erabiltzaileek erosi beharreko sarrera, alegia). Kasu horretan, BAKHeko zuzendaritzak prozedura eta baldintza guztiak ezarriko ditu.

Bazkideen erabilera eksklusiboko guneetan sartu eta irtetzeko, ezarritako sarbide-kontrolak erabili behar dira beti, eta bazkide-txartelaren edo beste edozein elementu baliokidearen erabilpena nahitaezkoa izango da. Horrela ez bada, ez da sarrera baimenduko.

Aldi berean, BAKHeko zenbait gunetara sartzeko zerbitzu osagarriak kontratatu behar dira eta, horrenbestez, sarbide-kontrolatan bazkide-txartela edo eskumuturrekoa identifikatu behar da gune horietara sartu edo irtetzean. Horrela ez bada, ez da sarrera baimenduko.

Instalazio barruan, BAKHeko langileek ere bazkide-txartela edo honen elementu baliokidea eskatu dezakete.

Bazkide-txartela edo eskumuturrekoa pertsonala da, eta erabat besterenezina. Bazkidearen nortasunari buruzko zalantzarik izan ezker, BAKHeko bazkideari bere burua identifikatzeko eskatu diezaioke, Nortasun Agiri Nazionala erakusteko eskatuz.

Bazkide-izaera egiaztatzen duen edozein elementu lagatzeak, bai eta beste pertsona bati iruzurrezko sarbidea errazteko laguntzak ere, erabilera-araudi honetan

aurreikusitako diziplina-zigor guztiak ekarriko ditu, bazkide-txartela automatikoki deuseztatzea barne.

Bazkideak bazkide-txartela edo baliokidea zaindu behar du eta, galdu edo lapurtuz gero, lehenbailehen jakinarazi beharko du BAKHen.

Hura ordezkatzeko bost (5) euro ordaindu beharko dira, aktibazio eta ordezkapen-gastu gisa.

Debekatuta dago instalazioetara hurrengo egoeretan sartzea:

- Mota guztietako animaliekin, erabiltzaile bati laguntzeko gida-txakurrak salbuespen.
- Pertsonentzat arriskutsuak izan daitezkeen objektuekin.
- Edozein motatako patinete, patin edo bizikletekin.

## 5. Harrera.

Harrera-zerbitzuaren ordutegia eta datak bat datoz instalazioarentzat ezarritako ordutegiarekin (araudiaren 3. atala).

Uneoro zerbitzu eta informazio egokia eskaintzeko helburuaz, harrera-zerbitzua lehentasunezkoa da bazkideentzat.

Harrera ez da ondasun pertsonalak gordetzeko erabiliko, ezta beste bazkide batzuei korrespondentzia emateko ere.

Harreran toila egongo dira alokagai, baina bertako langileak harreran ez badaude, bazkideak ezin izango dira harreraren barrualdera sartu arropa, toailak edo bestelakoak hartzeko.

Gainera, iradokizun-inprimakiak, erreklamazio-orriak, erabilera-araudia eta kontratazio-baldintzak erabiltzaileen eskura egongo dira bertan. Hala ere, aipatutako dokumentazioa <https://www.bakh.es/es/webgunean> eskuragarri dagoela jakinarazten da.

Harrera-zerbitzu presentzialaz gain, instalazioaren ordutegian 945 202 831 telefonora deituz edo [info@bakh.es](mailto:info@bakh.es) helbidera idatziz kontaktatu gaitzakezu.

## 6. Aldagelak.

Aldagelak bazkideentzat erabilgarri egongo dira instalazioa irekitzen denetik itxi baino 10 minutu lehenagora arte.

BAKHek honako aldagela hauek jartzen ditu erabiltzaileen eskura:

- 2 aldagela kanpoaldean, emakumezkoena eta gizonezkoena.
- 4 aldagela barrualdean: emakumezkoena, gizonezkoena, emakumezkoena zein 8 urtetik beherakoentzat, eta familiarra.

Emakumezkoen zein gizonezkoen aldagelek mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako dutxak dituzte.

Haur adingabeen garbitasuna errazteko, dutxa luzagarriak, tronak eta aldalekuak daude eskuragarri adingabekoen eta gizonezkoen aldageletan.

Aldagela familiarrak mistoak dira, ikastaroko ikasleen gurasoek haurrak aldatzeko bideratuta, alegia. Helduak ezin izango dira aldageletan aldatu.

8 urtetik aurrera, hurrei dagokien aldagela erabiltzea eskatzen diegu, emakumezkoa edo gizonezkoa.

Higienea dela eta, ezin da aldageletan jan.

### *6.1. Arropa aldatzeko gunea.*

Gune hau ahalik eta lehorren eta garbien mantentzeko, ezin dira kirol-arropak, bainu-jantziak, toallak edo bestelakoak xukatu. Horregatik, erabiltzaileei gune hezean lehertzeko eskatzen diegu, dutxetan hain zuzen ere.

Arropa guztia armairuan utzi beharko da, eta derrigorrezkoa da instalazioetatik irtetean norberaren gauza guztiak eramatea.

### **6.2. Takillak.**

Jardunaldiaren amaieran, takilla guztiak hutsik geratu behar dira.

Takillaren bat okupatuta geratzen bada, BAKHeK honen edukia baztertu, zigilatu edo biltegian gorde dezake.

Takilla erabili ondoren, atea itxita utzi behar da biderik oztopatu ez dezan.

BAKHeK ez du bere gain hartzen takillan utzitako objektuen gaineko erantzukizunik eta, beraz, bazkideak bere gain hartzen du lapurreta edo galera arriskua. Instalazioetara baliozko objekturik ez eramatea gomendatzen da.

### **6.3. Dutzak.**

Debekatuta dago dutxa-gunera kaleko oinetakoekin sartzea. Dutxa-gunean txankletak erabili behar dira.

Derrigorrezkoa da igerilekura sartu aurretik dutxatzea.

Ura zentzuz erabiltzeko eskatzen da.

Dutxa-gunetik ahalik eta lehorren irteten saiatu.

Uneoro dutxen garbitasuna eta higieua mantentzea eskatzen da, beste erabiltzaile edo instalazioengan eragin negatiboa izan dezakeen edozein jokabide saihestuz.

## 7. SPA gunea.

SPA gunea zentroa ireki eta 5 minutura zabalduko da eta zentroa itxi baino ordu erdi lehenagora arte egongo da erabilgarri.

SPA guneak 500 m2 ditu, eta bertan hurrengo espazioak daude eskuragarri:

- “Mar Muerto flotarium” igerilekua.
- Zurrusta-igerilekua.
- Etzaulki termikoak.
- Hidromasaje-igerilekua.
- Pedilubioa.
- Tonifikazio-igerilekua.
- Izotz-gunea.
- Kontraste-dutxak.
- Sauna finlandiarra.
- Bainu Turkiarra.

### 7.1. SPA guneko arau orokorrak.

SPA gunera sartzeko nahitaezkoa da gune honetako bazkide gisa identifikatzea, sarbide-tornuak erabiliz. Tornuek behar bezala funtzionatzen ez badute, igerilekuko arduradunari jakinarazi behar zaio.

Derrigorrezkoa da SPA erabili aurretik eta sauna edo Bainu Turkiarra erabili ondoren dutxatzea.

Hidroterapia gunera sartzeko bezeroek latexezko oinetakoak edo txankletak, bainurako arropa, eta toalla erabili beharko dituzte beti.

BAKHeko gainerako guneetara ezingo da alborioza jantzita sartu.

SPAko giro lasaia errespetatu dadin eskatzen da.

Ezin da gailu elektronikorik edo musika-erreproduzitzailerik erabili.

Erabat debekatuta dago irudiak erregistra dezakeen edozein elementurekin sartzeari, mugikorrek barne.

Debekatuta dago erretzea, jatea edo edatea.

Sarrera 16 urtetik aurrera dago baimenduta, eta 18 urtera arte heldu baten konpainia behar da.

SPArak ezin da kanpoko produktuekin sartu (gelak, koloniak, olioak, norberaren garbitasunerako produktuak, bizar-xaflak, etab.).

Bero-tratamenduak debekatuta daude haurdunaldian edo antikoagulatzaileak, antihistaminikoak edo lasaigarriak erabili ezker. Gure zerbitzuak erabili aurretik, diabetesa, bihotzeko arazoak edo odol-presio handia edo baxua duten pertsonak medikuari kontsultatu behar diote.

Mantentze teknikoak dela eta, urtean gutxienez hamabost egunetarako itxiko da SPA gunea. Itxiera-data jakinarazi egingo dira, eragozpenak ahalik eta txikiak izan daitezkeen.

## ***7.2. Saunako eta Bainu Turkiarreko arau espezifikoak.***

Higiene- eta mantentze-arrazoak direla eta, nahitaezkoa da ondo dutzatzea eta lehortezea Saunan edo Bainu Turkiarrean sartu baino lehen. Dutxen barruan behar bezala lehortezea eskatzen da.

Erabat debekatuta dago Saunaren barruan bizarra moztea edo bestelako higie pertsonalak egitea.

Halaber, debekatuta dago jatea edo hondakinak sorrarazi ditzakeen beste edozein ekintza burutzea.

Debekatuta dago liburuak, aldizkariak edo paperak Bainu Turkiarrean sartzean.

Ezin da inolako gorputz-kremarik eman Saunan edo Bainu Turkiarrean sartu aurretik.

Debekatuta dago harrien eta erresistentzien guneetan edozein produktu isurtzea. Errekuntza-arriskua dago.

Ezin da Saunan edo Bainu Turkiarrean arropa lehortu.

Larruazaleko gaixotasun kutsakorren bat izan ezker, Saunan edo Bainu Turkiarrean sartzea debekatuta dago.

Ez da gune hauen erabilpena gomendatzen otordu oparoen ondoren.

## **8. Nutrizio zerbitzua.**

Baskoniaren eta Alavesen nutrizio-taldearen dietetika- eta nutrizio-aholkularitza zerbitzu profesionala dago eskuragarri BAKHen.

Zerbitzu honetaz baliatzeko erreserba aldeztu aurretik egin behar da.

Jendaurreko ordutegia goizez edo arratsaldean izan daiteke, eskariaren eta bezeroen beharren arabera.

Erreserbak egin edo informazioa eta tarifak eskuratu nahi ezker, 649 256 474 telefonora deitu, [nutricion@bakh.es](mailto:nutricion@bakh.es) helbidera idatzi, edo harreraren galdetu.

## **9. Igerileku gunea.**

Igerileku gunea zentroa irekitzen denetik itxi baino ordu erdi lehenagora arte dago erabilgarri.

Hiru gune daude: estalitako gunea, estali gabeko gunea eta kanpoko kafetegia.



### **9.1. Estalitako gunea.**

Espazio hau 4 gunek osatzen dute: Matroigeriketa, Haurrentzako gunea, Hidromasajea eta Igeriketa.

Gune honetara sartzeko bainujantzia eta toaila beharrezkoak dira, eta gune osoan zehar ibiltzeko txankletak erabili behar dira.

Derrigorrezkoa da igerilekura sartu aurretik dutxatzea.

Bainu-txanoaren erabilpena ez da nahitaezkoa.

Bazkideen segurtasunagatik ezin da igerilekuko hondartza gunean korrika egin.

14 urtetik beherako haur guztiek heldu batekin egon behar dute.

BAKHek antolatutako jardueretan (uretan zein uretatik kanpo), soroslearen jarraibideak bete behar dira.

Baimenduta dago hegatsak eta/edo eskuzorroak erabiltzea, betiere soroslearen jarraibideak betez.

Igeriketa-kaleetan 16 urtetik gorakoek dute lehentasuna, eta beharrezkoa denean kaleak partekatu egin behar dira.

BAKHek zuzenean antolatutako ikastaro edo jarduerak lehentasuna dute gainerako jardueren aurrean.

Giro lasaia sortzeko helburuaz, ahotsa ez altxatzea eskatzen da.

Mantentze tekniko delata eta, urtean gutxienez hamabost egunetara itxiko dira igerilekuak. Itxiera-data jakinarazi egingo dira, eragozpenak ahalik eta txikiak izan daitezkeen.

## **9.2. Estali gabeko gunea.**

Eguraldiak utzi ezker, gunea hau maiatzean, ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean egongo da zabalik.

Ordutegia 09:00etatik 21:00etara izango da.

Gunea honetara sartzeko bainujantzia eta toaila beharrezkoak dira, eta igerilekuko hondartza gunean txankletak nahitaezkoak dira ere.

Bainu-txanoaren erabilpena ez da nahitaezkoa.

Derrigorrezkoa da dutxatzea igerilekura sartu aurretik, eta igerilekuko hondartza gunera sartu baino lehen pedilubioak erabili behar dira.

14 urtetik beherako haur guztiek heldu batekin egon behar dute.

Segurtasunagatik igerilekuko hondartza gunean edo kanpoko igerilekuaren uhartean korrika egitea debekatuta dago.

Jolas eta praktika arriskutsuak debekatuta daude (korrika egitea, apnea luzeak, bortizki murgiltzea, objektuak botatzea, etab.), bai eta, oro har, beste erabiltzaile batzuen ongizatea zaildu, oztopatu edo eragotzi ditzaketen ekintza guztiak ere.

Top-lessa baimenduta dago. Nudismoa aldiz, debekatuta.

Igerilekuko hondartza gunean bazkaltzea debekatuta dago. Berdegunean eta kafetegian egokitutako mahaietan bazkaldu daitezke.

Igerilekuko hondartza gunean erretzea debekatuta dago. Berdegunean erre daiteke, betiere haurren gunetik ahalik eta urrunen.

Ezin daiteke BAKHen materiala igerilekutik kanpo atera. Norberaren jolas-materialak erabil daitezke, betiere soroslearen jarraibideak betez.

Haurdunei edo hipertentsio arazoak, kardiopatia larriak eta beste patologia batzuk dituzten pertsonei, haien egoera sorosleari jakinaraztea gomendatzen zaie.

Debekatuta dago objektu pertsonalekin hamakak gordetzea eta hauek igerilekuko hondartza gunetik kanpo ateratzea. Debekatuta dago Bakh-eko ez diren hondartza edo igerilekuko tresnak erabiltzea, justifikaziorik eta berariazko baimenik izan ezean. Antolatzaileek eskubidea dute erretiratzeko.

Haur-kotxeekin igerilekua zeharkatu beharrean, horretarako egokituta dauden bideak erabili behar dira.

Soroslearen jarraibideak bete behar dira beti.

### **9.3. Kanpoko kafetegia.**

Baldintza klimatologikoak egokiak izan ezker, kanpoko kafetegiaren ordutegia honako hau izango da:

Astelehenetik ostiralera: 12:00etatik 21:00etara

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 11:00etatik 21:00etara

Kafetegia baldintza onenetan mantentzeko, erabiltzaileei igerilekuko hondartza gunean behar bezala lehortu daitezen eskatzen diegu.

Ezin dira edariak sartu igerilekuko hondartza gunera.

Zaborra zakarrontzietara botatzea eskatzen da.

Igerilekuari buruzko informazio gehiago nahi ezker, 945 295 293 telefonora deitu, [aqua@bakh.es](mailto:aqua@bakh.es) helbidera idatzi, edo harreran galdetu.

## 10. Fitness gunea.

Fitness gunea zentroa irekitzen denetik itxi baino ordu erdi lehenagora arte dago erabilgarri.

Bertara sartzeko nahitaezkoa da gune honetako bazkide gisa identifikatzea, sarbide-tornuak erabiliz. Tornuek behar bezala funtzionatzen ez badute, arduradunari jakinarazi behar zaio.

Derrigorrezkoa da toaila gune osoan erabiltzea, makina edo elementu bakoitzean ariketak amaitu ondoren, horiek garbi eta lehor gera daitezen eta hurrengo erabiltzaileek egoera ezin hobean aurki ditzaten.

Fitness gunean kirol-oinetako garbiak eta kirol-arropa egokia erabili behar dira (bisita puntualak salbuespen). Ariketa BAKHeKO kanpoaldean eginez gero, Fitness gunera sartzeko derrigorrezkoa da kirol-oinetakoak aldatzea.

Bazkide guztiak makina kardiobaskularrak erabil ditzaten, beste bazkide batzuk makineria hori erabiltzeko zain badaude, makinak gehienez 45 minutuz erabiltzea eskatzen da.

Ezin da Fitness gunera inolako elikagairik sartu.

Fitness gunea erabiltzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da.

Pisu libreen gunea 18 urtetik aurrera erabiltzea gomendatzen da.

Salbuespenezko kasuetan, dagokion mediku-ziurtagiria eta adingabearen legezko tutorearen idatzizko baimena BAKHeKo Administrazioan aurkeztuta eta BAKHeKo Zuzendaritzak baimena ematea baloratu ondoren, 16 urte baino gutxiagoko gazteek Fitness gunea erabili dezakete.

Egindako ahaleginak hala eskatzen badu, aretoko teknikari baten edo beste bazkide baten laguntza gomendatzen da.

Pisu librea (diskoak, barrak...) edo beste edozein kirol-materiala erabili ondoren, material hau bere lekuan utzi behar da berriz. Gimnasioko ordenak denei egiten digu mesede.

Mantentze, obra edo garbiketa lanak direla eta, BAKHeK fitness gelak partzialki edo guztiz itxi ditzake. Hala izan ezker, behar besteko aurrerapenez abisatuko dugu eragozpenak ahal den neurrian saihesteko.

### ***10.1. Aktibitate-gelak.***

Fitness gunearen barruan, teknikari batek zuzendutako jarduerak ikasteko gelak daude.

Ordutegiak, gelak, beharrezko adina eta ikastaro hauekin lotutako informazio guztia sarrerako iragarkien kartelean eta BAKHen webgunean dago eskuragarri.

Klasea zuzentzen duen teknikariaren jarraibideak betetzea gomendatzen da, bai ariketak egitean, bai eta jarduera horri lotutako elementuak eta makinak erabiltzean ere.

Pultsometroa erabiltzea gomendatzen dugu.

Barren, pisuen, halteren edo koltxoneten erabilera beharrezkoa den jardueretan, saioa amaitzean material hori dagokion lekuan uzteko eskatzen da.

## 11. “Cycling” gela.

Gela honetan Spinning jarduera lantzen da, teknikari batek zuzendutako modalitatean, bai eta formatu birtualean ere.

Jardueraren ordutegia eta gainontzeko informazio guztia sarrerako iragarkien kartelean eta BAKHen webgunean dago eskuragarri.

Gela ezin da programatutako jardueren ordutegietatik kanpo erabili.

Bertara sartzeko nahitaezkoa da gune honetako bazkide gisa identifikatzea, sarbide-tornuak erabiliz. Tornuek behar bezala funtzionatzen ez badute, arduradunari jakinarazi behar zaio.

Derrigorrezkoa da toaila erabiltzea eta bizikleta lehor eta garbi uztea klasea amaitzerakoan.

Komeni da klasera ur-botila batekin joatea.

Pultsometroa erabiltzea gomendatzen da.

Debekatuta dago klaseetan mugikorrak erabiltzea.

Teknikariaren jarraibideak betetzea gomendatzen da, bai bizikleta behar bezala erabiltzeari dagokionez, bai eta klaseari buruzko jarraibideei dagokienez ere.

Fitness guneari buruzko informazio gehiago nahi ezkeru, 945 295 294 telefonora deitu, [fitness@bakh.es](mailto:fitness@bakh.es) helbidera idatzi, edo harreran galdetu.

## 12. Padel eta Tenisa.

Gune hau zentroa irekitzen denetik itxi baino ordu erdi lehenagora arte dago erabilgarri.

Oinetako eta kirol-arropa egokiak erabili behar dira. Debekatuta dago takoak dituzten zapatilak erabiltzea.

Errespetatu erreserbaren ordutegia. Puntualak izan pistan sartzean eta handik irteteen.

Nahitaezkoa da padeleko harreratik pasatzea jokalarien datuak adierazteko eta jokatzeko hasi baino lehen ordaintzeko.

Erreserbak bertan behera uzteko gehieneko epea 24 ordukoa da; epe hori igarotakoan, penalizazio bat ordaindu beharko da. Zigorrak: 5€ lehen aldian, 10€ bigarrenetan eta 20€ hirugarrenetik aurrera.

Ahotsa altxatzea saihestu behar da, ondoko pistetako jokalariek ez molestatzeko.

Pisten iluminazioaren ordutegia eta intentsitatea instalazioko langileek ezarriko dituzte, urtaroaren eta baldintza klimatologikoen arabera.

Erabat debekatuta dago pistetan jatea eta erretzea.

Debekatuta dago pistak partikularrei edo kolektiboari klaseak emateko edo lehiaketak egiteko erabiltzea. Horretarako, BAKHen baimena behar da.

Mesedez ez utzi zaborrik pistan (latak, botilak, etab.). Kanpoan dauden zakarrontziak erabili behar dira.

Pisten erabilgarritasuna mugatzen dituzten txapelketak edo bestelako jarduerak antolatzen badira, BAKHei alde aurretik jakinaraziko ditu data horiek.

Padel eta tenis guneari buruzko informazio gehiago nahi ezker, 691 409 091 telefonora deitu, [padel@bakh.es](mailto:padel@bakh.es) helbidera idatzi, edo harreraren galdetu.

### **13. Kirol anitzeko pista estalia.**

Ordutegia: jardueren plangintzaren arabera.

Erreserbatutako jarduerak lehentasuna izango dute alokairuekiko.

Baskonia eta Baskonia Fundazioko taldeen entrenamenduetarako ordutegi erreserbatuak egongo dira.

Ordutegi horien informazioa bazkideentzat eskuragarri egongo da.

Gune honetara kirol-ordutegian sartzeko, kirol-arropa eta -oinetakoak jantzi behar dira (harmaila gunea eta bisita puntualak salbuespen).

Ekitaldi bereziak antolatzen direnean, arauak kasuan kasuko ekitaldira egokituz argitaratuko dira.

### **14. Kirol anitzeko kanpoko pistak.**

Gune hau zentroa irekitzen denetik itxi baino ordu erdi lehenagora arte dago erabilgarri.

Pista hauek instalazioari dagozkion kirol-jarduerak egiteko dira.

Talderen bat pistak erabiltzeko zain badago, ezingo da pista ordubete baino gehiagoz erabili.



Mesedez ez utzi zaborrik pistan (latak, botilak, etab.). Kanpoan dauden zakarrontziak erabili behar dira.

## **15. Izotz-pista.**

Izotz-pistako zerbitzua irailetik maiatzera eskainiko da. Dena den, periodo hau aldatu egin daiteke eguraldiaren arabera.

Jendaurreko saioen ordutegia honako hau da:

- Ostiralak: 16:30etik 19:30era.
- Larunbatak: 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 22:30era.
- Igande eta jaiegunak: 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 21:00etara.
- Oporraldiak: 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

Kirol-neurketak edo bestelako jarduerak direla eta, larunbatetan edota beste egun batzuetan izotz-pista BAKHen ordutegitik kanpo zabalik badago, sarrera eta irteera izotz-pistaren kanpoko atetik egin beharko da.

Ordutegi hauek aldatu egin daitezke kirol-lehiaketa edo ekitaldien ondorioz. Pistara joan aurretik ordutegiak kontsultatzea komeni da.

4 urtetik beherako umeak edo 26 tallara heltzen ez diren haurrak ezin izango dira izotz-pistan sartu.

8 urtetik beherako hurrek heldu batekin egon beharko dute une oro.

12 urte bete arte derrigorrezkoa da kaskoaren erabilpena, eta gainontzeko erabiltzaileentzat gomendagarria da ere.

Jendearen kontrako norabidean patinatzea, eta jazarpenak edo joko-kateak egitea debekatuta dago.

Ezin da abiadura-jokorik egin. Beste erabiltzaileak bultzatzea debekatuta dago ere.

Izotzari ostikadak ematea, izotzaren hondarrak hartzea eta elur-bolak egitea debekatuta dago.

Debekatuta dago izotz-pista inguratzen duen barandara igotzea.

Patinaje-ikastaroak egiteko mugatutako eremuak ezin dira zeharkatu, ezta pistaren erdiko ardatza ere.

Debekatuta dago izotz-pistan erretzea.

Pista barruan ezin da edaririk edo janaririk sartu.

Pistara ezin da kaleko oinetakoekin sartu.

Makinak pasatuko direla jakinarazten denean, erabiltzaileek lehenbailehen utzi beharko dute pista.

Zakarrontziak erabili daitezen eskatzen da.

Debekatuta dago animaliak izotz-pistara sartzea.

Erabiltzaileen portaera besteeikiko errespetuan oinarritu behar da. Ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen ez dituzten erabiltzaileak pistatik kanporatuak izan daitezke, sarreraren deboluzio eskubiderik gabe. Bazkide edo abonatu izanez gero, arau-haustea dagokion zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio, honek zigorren ezarpena aztertu dezan.

Izotz-pistari buruzko informazio gehiago nahi ezker, 945 295 295 telefonora deitu, [hielo@bakh.es](mailto:hielo@bakh.es) helbidera idatzi, edo harreran galdetu.

## 16. Ludoteka eta BAKH Kluba.

### 16.1. Ludoteka.

BAKHeko ludoteka hezkuntza-gune bat da, eta bertan hurrek jolasak eta jostailuak dituzte eskura. Aisialdiko jarduera ludikoaren bidez, adingabearen garapen soziala, afektiboa eta kognitiboa bultzatzea da helburua.

Ludoteka-zerbitzua ordutegi honetan egongo da erabilgarri:

- Astelehenetik ostiralera: 17:30etatik 20:00era
- Larunbat eta igandetan: 10:00etatik 14:00etara

Sarrerak eskuratu, plazak erreserbatu edo informazioa jaso nahi ezker, harrera-zerbitzuan galdetu.

2 urtetik 10 urtera bitarteko hurrek disfrutatu dezakete zerbitzu honetaz.

Plaza kopurua langile kopuruak baldintzatuko du, gehieneko edukiera 45 hurrekoa izanik.

### 16.2. BAKH Kluba.

Haurrentzako leku ludiko eta sortzailea da, bizikidetza sustatu, hurren gaitasunak garatu eta haien arteko dibertsio osasungarria lortzen saiatzen dena.

BAKH Kluba puzgarriz beteriko gune batek eta jolas libreko beste gune batek osatzen dute.

BAKH Kluba kirol anitzeko pistak erabilgarri egon ezker jarriko da martxan, eta honako hau izango da bere ordutegia:

Larunbat eta igandeak: 17:00etatik 20:00etara.

3 urtetik 10 urtera bitarteko hurrek gozatu dezakete zerbitzu honetaz.

Sarrerak eskuratu, plazak erreserbatu edo informazioa jaso nahi ezker, harrera-zerbitzuan galdetu.

Sarrerak erosteko, plazak erreserbatzeko eta informazioa jasotzeko, harrera-zerbitzuan galdetu.

Plaza kopurua langile kopuruak baldintzatuko du, gehieneko edukiera 65 haurrekoa izanik.

### **16.3. Urtebetetzeak eta espazioen alokairua.**

BAKHek urtebetetzeak eta haurrentzako jaiak ospatzeko aukera eskaintzen du, baita haurrekin jarduerak egiteko hainbat espazioen alokairua ere.

Ludotekari eta bere zerbitzuei buruzko informazio gehiago nahi ezker, 635 017 912 telefonora deitu, [cumplebakh@bakh.es](mailto:cumplebakh@bakh.es) helbidera idatzi, edo harreran galdetu.

## **17. Aparkalekua.**

Aparkalekua irekita egongo da zentroa irekitzen denetik instalazioa itxi baino bost minutu lehenagora arte, zerbitzu hori abonu-modalitatearen barne duten bazkideentzat, alegia.

Ezin da ibilgailua aparkalekuan aparkatuta utzi ordutegi horretatik kanpo.

Aparkalekurako sarbide librea duten plazen kopurura mugatu egingo da eta, beraz, sarrera moztu egingo da gehiengo edukierara heltzean. Hori bai, aparkalekuak libratzen diren heinean, berriz irekiko da aparkalekua.

BAKHek ez du bere gain hartzen ibilgailuetan utzitako objektuen gaineko erantzukizunik eta, beraz, bazkideak bere gain hartzen du lapurreta edo galera arriskua. Instalazioetara baliozko objekturik ez eramatea gomendatzen da.

## 18. Bazkideen kafetegia (Gune soziala).

BAKHek kafetegi-zerbitzua eskaintzen die bere bazkide eta inskribatuei.

Kafetegiaren ordutegia honako hau izango da:

- Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik instalazioa itxi arte.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 09:00etatik instalazioa itxi arte.
- Zerbitzua itxi baino 15 minutu lehenago zerbitzatzeari utziko zaio.

Kafetegira ezin da bainujantzian edo kirola egiteko erabili den arroparekin sartu.

Kafetegia bazkideek eta bestelako modalitatearen baten izena eman duten bezeroek erabili dezakete soilik (ekitaldiak, bisita komertzialak, edo zuzendaritzak baimendutako beste kasu batzuen salbuespenarekin). Beraz, kafetegira sarbide-kontrolarik sartu behar da.

## 19. BAKH Jatetxea.

BAKHek jatetxe-zerbitzua eskaintzen du astelehenetik igandera. Jatetxea urte osoan zehar dago zabalik, abuztuaren salbu, abuztuaren 4tik 30era itxi egiten baita.

Aste osoko ordutegia: 13:15etik 16:00etara.

Jatetxea hutsik geratu beharko da hurrengo orduan:

- Astelehenetik ostiralera: 17:00etan
- Larunbat eta igandeetan: 18:30etan

Jatetxe-zerbitzua bazkide zein bazkide ez diren pertsonentzat dago zabalik.

Jatetxearen gehieneko edukiera 160 pertsonakoa da.

BAKHek ekitaldiak eta afariak ospatzeaz gain, jatetxeko espazio batzuk alokatu egiten dira ere.

Kontsultatu gure menu bereziak.

Kontsultak, erreserbak, menu bereziak edo informazio gehiago behar ezker, 945 203 143 telefonora deitu edo [restaurante@bakh.es](mailto:restaurante@bakh.es) helbidera idatzi.

Jatexera ezin da bainujantzian edo kirola egiteko erabili den arroparekin sartu.

Mesedez, errespetatu jatetxeko giro lasaia, gainerako mahaikideei eragozpenik sortu gabe.

## **20. Hall Kafetegia.**

Halaber, BAKHeK kafetegi-zerbitzua eskaintzen du publiko guztiarentzat. Hona hemen ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 17:30etik 21:00etara.
- Larunbatak: 09:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 21:00etara.
- Igandeak: 12:00etik 14:00etara eta 17:30etik 21:00etara.

BAKHen neurketak, ekitaldiak edo bestelako jarduerak ospatu ezker, kafetegiaren ordutegia aldatu egin daiteke.

Zerbitzua itxi baino 15 minutu lehenago zerbitzatzeari utziko zaio.

Kafetegira ezin da bainujantzian edo kirola egiteko erabili den arroparekin sartu.

## **21. DEBEKATUTAKO JOKABIDEAK.**

Debekatuta dago substantzia toxikoak, estupefazianteak edo psikotropikoak kontsumitzea, prestatutako guneetatik kanpo erretzea, eta horretarako ezarri diren guneetatik kanpo jatea edo edatea.

Debekatuta dago bozgorailu portatilak erabiltzea.

Aldageletan ezin dira argazkiak eta bideoak atera. Gainerako instalazioetan, filmatutako pertsonen baimena beharko da beti.

Debekatuta dago entrenamendu pertsonalak indibidualki zein taldean egitea. Horretarako, BAKHen baimena beharko da.

Ez da onartuko bazkideen edo BAKHeko langileen aurka indarkeria fisikoa edo ahozko indarkeria erabiltzea. Gainerako erabiltzaileekiko gutxieneko adeitasun bat erakutsi behar da, momentu oro erabilera-araudia errespetatuz.

## **22. DIZIPLINA-ARUBIDEA.**

Erabilera-araudi honek ezarritakoaren arabera, eta beste arau batzuen artean, bazkideek eta erabiltzaileek araudi hau betetzeaz gain, BAKHeko langileen jarraibideak bete behar dituzte.

Arau-haustea gertatuz gero, diziiplina-prozedura bat zabaldu daiteke eta, ondorioz, bazkideentzako eta erabiltzaileentzako zigorrak ezarri daitezke.

Arau-haustearen larritasunaren eta berrerortzearen arabera, bazkideak bazkide-izaera galdu dezake.

Diziiplina-araubide honek ez du zerikusirik arau-hausleek izan ditzaketen erantzukizun zibil edo penalekin.

### **22.1. DIZIPLINA-PROZEDURA.**

#### **22.1.1. *Diziiplina-batzordea.***

Bazkide edo erabiltzaileek erabilera-araudiaren arau-hausteen ondorioz izapidetu daitezkeen diziiplina-espeditueez arduratzeko, diziiplina-batzorde bat eratuko da. Batzordea BAKHeko zuzendaritza-kideek eta arau-haustearen arduradunak osatuko dute.

Halaber, BAKHeKO zerbitzu juridikoek espedientea izapidetzen lagundu dezakete, baina ez dute inola ere ez erabakietan parte hartuko.

Egon litezkeen interpretazio eta zalantzak BAKHeKO zuzendaritzak ebatziko ditu, bai eta araudi honetan aurreikusi gabeko kasuetan ere.

### **22.1.2.    *Espedientea hastea.***

Diziplina-batzordeak diziplina-espedientea ireki dezake, erabilera-araudia ez betetzeagatik, beste erabiltzaile batzuen salaketagatik, edota ofizioz gertakarien berri zuzenean hartzeagatik.

Espedientearen hastea posta elektronikoz bidez jakinaraziko zaio ustezko arau-hausleari, honako datu hauek adieraziz:

- Espedientea izapidetzeko izendatutako arduraduna.
- Egozten diren egitateak eta balizko zigorra.
- Alegazioak egiteko, egokitzen jotzen dituen dokumentu eta txostenak aurkezteko, eta beharrezkotzat jotzen dituen frogabideak proposatzeko aukera, zazpi (7) egun balioduneko epean, espedientea hasi dela jakinarazten denetik.

### **22.1.3.    *Probaldia.***

Epe hori igarotakoan, egokitzen jotzen diren froga-eginbideak gauzatuko dira.

Ustezko arau-hausleak eskatutako froga ukatzeko erabakia arrazoituta hartu beharko da eta ustezko arau-hausleari jakinarazi beharko zaio; hark bost (5) egun balioduneko epea izango baitu errekurtsua aurkezteko.

Espedientearen hasiera jakinarazi ondoren, ustezko arau-hausleak ez badu alegaziorik egiten, egitateak aitortzen dituela ulertuko da, eta ez da beharrezkotzat joko froga-eginbideak gauzatzea.

### **22.1.4.    *Ebazpen-proposamena.***

Egokitzen jotako frogak aurkeztu eta gero, espedientearen instruktoreak ebazpen-proposamena egingo du. Froga-eginbideen emaitza ikusita, arau-haustea eragin duten



egitateak sendoak iruditzen zaizkion adieraziko du instruktoreak eta, beraz, egitate horiek zehagarriak edo, aitzitik, bidegabeak diren azalduko du.

Ebazpen-proposamena ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio, eta hark zazpi (7) egun balioduneko epea izango du egokitzat jotzen dituen alegazioak egiteko.

#### **22.1.5. Ebazpena.**

Ebazpen-proposamena eta alegazioak jaso ondoren, Diziplina Batzordeak egokitzat jotzen duena ebatziko du, eta berehala jakinaraziko dio ustezko arau-hausleari.

Zigorra jartzea erabakitzen bada, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera ezarriko da zigorra.

#### **22.1.6. Kautelazko neurriak.**

Diziplina-espedientea arau-hauste larriengatik zabaldu ezker (indarkeriaren erabilpenarekin lotutako gertaerengatik, alegia), diziplina-batzordeak bazkideari BAKHera sartzea debekatu diezaioke kautelazko-neurri gisa diziplina-espedientea izapidetzen den bitartean. Nolanahi ere, neurri hori ezingo da hogeita hamar (30) egun baliodun baino gehiagoz luzatu.

### **22.2. ARAU-HAUSTEEN SAILKAPENA.**

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

Arau-hauste **arintzat** hartuko dira:

- BAKHeko instalazioak gaizki erabiltzea.
- Txartela galdu dela ez jakinaraztea.
- Instalazioetan oihuak edo bestelako ekintza gogaikarriak egitea.

Arau-hauste **larritzat** hartuko dira:

- Arau-hauste arinak behin eta berriz errepikatzea.
- BAKHeko langileen ohartarazpenei jaramonik ez egitea.
- Beste bazkide baten osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten ekintzak egitea.

- Beste erabiltzaile batzuk apropos kaltetzea.
- Araudi honetan ezarritako oinarritzko arauak ez betetzea.
- BAKHera behin eta berriz bazkide-txartelik edo egiaztagiririk gabe gerturatzea.
- BAKHeko instalazioak behin eta berriz gaizki erabiltzea.
- Instalazioaren garbiketa eta higiene egokia mantentzearen kontra dauden ekintzak burutzea.

Arau-hauste **oso larritzat** hartuko dira:

- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- Indarkeriazko jokabideak.
- Bazkide-txartela beste pertsona bati lagatzea, instalazioko bazkide ez diren pertsoneri sarbidea erraztuz.
- Instalaziorako sarbidea erraztea (beste baliabide batzuen bidez).
- BAKHeko instalazioak eta ekipamenduak haustea edo hauei tratu txarra ematea.
- BAKHeko beste bazkide baten aurka indarkeria fisikoa edo ahozko indarkeria erabiltzea.
- BAKHeko langile baten aurka indarkeria fisikoa edo ahozko indarkeria erabiltzea.
- BAKHeko instalazioetan beste baten ondasunak lapurtzea, ebastea edo bidegabeko jabetzea.
- BAKHeko inskripzio-datuak faltsifikatzea.
- Sexu-jazarpena.
- Delitutzat katalogatutako edozein ekintza egitea.

### 22.3. ZIGORRAK.

Arau-hauste horiek honako zigorrak ekar ditzakete:

- Arau-hauste arinengatik, hitzezko ohartarazpenak egingo dira.
- Larritasunaren arabera, arau-hauste larriek honako zigorrak izan ditzakete:
  - Idatzizko ohartarazpena.
  - Aldi baterako kanporatzea (gehienez 7 egun instalazioetara sartu gabe).
- Larritasunaren arabera, arau-hauste oso larriek honako zigorrak izan ditzakete:
  - Aldi baterako kanporatzea (7 eta 30 egun bitartean instalazioetara sartu gabe).

- Bazkide-izaera galtzea.

Zigor mota, haren ezarpena eta iraupena zuzendaritzak erabakiko ditu; betiere arau-haustearen sailkapenaren, larritasunaren eta zirkunstantzien arabera. Nolanahi ere, hartutako erabakia justifikatu egingo da.

Nahiz eta instalaziotik kanporatu eta bazkide-izaera aldi baterako eten, bazkideak ez du inola ere ordaindutako kuotaren gainean deboluzio eskubiderik izango. Etenaldian zehar dagozkion kuotak ordaintzeari uzten bazaio, bazkideari behin betiko baja emango zaio.

